



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

UDALBATZARRAK 2020KO MARTXOAREN 10ean OSPATUTAKO EZ-OHIZKO BILKURAREN AKTA

2020ko martxoaren 10ean, Alkizako Udaletxean, arratsaldeko 16:00etan, Koldobika Jauregi Zinkunegi Alkateordearen Lehendakaritzapean behean aipatzen diren zinegotziak bildurik, ondorengo erabakiak hartu ziren :

ALKATEORDEA : Koldobika Jauregi Zinkunegi
ZINEGOTZIAK : Jose M^a Aranzabe Urruzola
Concepcion Soria Legua
Unai Sorarrain Urruzola
Gillermo Jesus Otegi Zubillaga

Bere ezin etorria azaltzen dute: Shrabani Aranzabe Pita

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

Ondorengo gaiak aztertu eta erabaki ziren:

1. 2020ko apirilaren 5ean egingo diren Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeetan mahaikideak izendatzeko zozketa.

.../...

LEHENENGO PUNTUA

**2020ko APIRILAREN 5ean EGINGO DIREN EUSKO
LEGEBILTZARRERAKO HAUTESKUNDEETAN MAHAIKIDEAK
IZENDATZEKO ZOZKETA**

Ikusirik datorren apirilaren 5ean Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeak ospatuko direla eta mahaikideen izendatze zozketa burutu behar dela, zozketa CONOCE aplikazio sistemaren bidez egingo delarik.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Izendatze zozketari hasera ematen dio Alkateorde jaunak, ondoren aipatzen diren mahaikideak izendatzen direlarik:

LEHENDAKARIA: JORGE DEVIS JAEN

1. ORDEZKOA: JOSE FELIX ETXEBERRIA ZAPATERO
2. ORDEZKOA: JOSE ANTONIO ZUBIAURRE ARANZABE

1. BOKALA: SONIA ARTUZAMONOA ZUBILLAGA

1. ORDEZKOA: JUAN JOSE SARALEGI OLARRA
2. ORDEZKOA: JOSE RAMON ARAMBURU ARRUTI

2. BOKALA: JOSEBA JAVIER URRUZOLA ZURIARRAIN

1. ORDEZKOA: ADORACION VAZQUEZ HERCE
2. ORDEZKOA: JUAN CARLOS ECHEVESTE MOZO

BIGARRENGO PUNTUA

**ALKIZAKO KULTUR PAISAIA BALIOAN JARRI ETA
ERAKARGARRITASUN ARTISTIKOA GEHITZEKO
PROPOSAMENAREN ONESPENA**

Ikusita, Gipuzkoako Lurralde Historikoan degradatutako eremuak leheneratzeko eta berroneratzeko eta azpiegitrua berdeak eta erresilientzia hobetzeko diru-laguntzaren babesean, Alkizako Kultur paisaia balioan jarri eta erakargarritasun artistikoa gehitzeko proiektu bat martxan jarri nahi duela.

Ikusita, aipaturiko proiektua egiteko KIMUBAT enpresari eskatu zaiola aurrekontu bat.

Ikusita Alkizako udalak ez dituela baliabide material eta pertsonalik aipaturiko proiektua egiteko.

Ikusirik, kontratu Txiki baten aurrean gaudela, konkretuki zerbitzu kontratu Txiki baten aurrean.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

LEHENA: KIMUBAT enpresari, Alkizako kultur paisaia balioan jarri eta erakargarritasun artistikoa gehitzeko proiektua egiteko kontratua esleitzea, 1.500, 00 eurotako diru-kopuruan (BEZ kanpo).

Eta aztertu beharreko beste gairik ez dagoenez, Lehendakari Jaunak bilkura 16:15 ordutan amaitutzat eman du eta akta hau jaso da, etorri diren guztiek izenpetu dutena eta Idazkari naizen honek, aztertu denaren benetako adierazgarria dela uste duena.